

Donostian, 2004.eko urtarrilaren 30ean

Batzar-agiria

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Jose Luis Lizundia,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola,
eta Piarres Xarritton,
euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, eta Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Antonio Arana-Martijak, ahala X. Kintanari; Juan Mari Lekuonak, ahala J. Haritschelharri. Patxi Goenagak, P. Salabururi eta P. Zabaletak A. Iñigori utzi dio.

Batzarra goizeko 10,12an hasi da Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

Batzarra hasi baino lehen, J.J. Gonzalez Txabarri Diputatu Nagusiak bilduak agurtu ditu, eta Diputazioak enkantean berriki erosi duen eskuizkribua erakutsi die. Egilea Joan Perez Lazarragakoa da, XVI. mendeko idazle arabarra. Testua, prosaz eta bertsoz moldatua, guztiz interesgarria dela azaldu du.

1. Akta onartzea.

Abenduko batzarraren akta, oharrik gabe, onartu da.

2. Jagon Saileko Corpusa: “Euskalkien erabileraz Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan”. Testuari ohar idatziak egin dizkioten euskaltzainek, X. Kintanak, J.L. Lizundiak eta P. Salaburuk ahoz beren oharren funtsa azaldu dute. Hirurak Jagon Sailarekin biltzeko gelditu dira, testuan ohar horiek txertatu ahal izateko. M. Azkaratek esan du irakasle-aldaketetan bertoko euskalkia jakitea eskatzea ez litzatekeela erraz onartzekoa izango. A. Iñigok ea hori desiragarria izango litzatekeen galdetu du. A. Urrutiak ohargileei eskerrak eman eta oharrak integratzekoak direla esan du.

3. Onomastika: Nafarroa Behereko 6. eskualdea –Agaramont– : erabakita-koa banatu da.

4. Hiztegi Batua: *askatzaile-atomatu* zerrenda onartua banatu da.

5. Hiztegi Batua: *azalki-azuzena* (oharrik gabeko hitzen zerrenda banatu da).

6. Diruzaina izendatzea. Zuzendaritzak, diruzain kargurako, J.L. Lizundiaren proposamena egin du. Botazioan J. L. Lizundiak 18 boto ukan ditu eta boto zuri bat. Izendaturik gelditu da.

7. Hiztegi Batua: atomika-aurpegi zerrendan, *atril* eta *aurpegi* hitzen arteko oharrak aztertu dira.

8. Gipuzkoako Diputazioaren irizpena erabakitzea: J.L. Lizundiak, berak eta A. Eguzkitzak egindako txostena azaldu du. Bestelako iritziak entzun ondoren, *Gara-pen iraunkorra* erabaki da erdarazko ‘desarrollo sostenible’ ‘développement durable’ kontzeptua euskaraz adierazteko.

9. Eskuartekoak.

9.1. Fagor-en hiztegia. *Fagor* enpresak egindako *Altzarien negozioko hiztegia*, Euskaltzaindira bidalia, euskaltzainen artean banatu da.

9.1. Juan San Martin-i urrezko domina. J. San Martin euskaltzainari zorionak ematea erabaki da, joan den abenduaren 30ean Hondarribiko Udalak urrezko domina eman diolako. Ekitaldian euskaltzain oso eta urgazle batzuk izan ziren.

9.2. Pedro de Yrizar-en heriotza. Pedro de Yrizar ohorezko euskaltzaina urtarrilaren 10ean Madrilen hil dela jakinarazi da. Euskaltzaindiaren izenean doluminak helarazi zaizkio familiari. Familiak eskutitez eskerrak igorri ditu hiletetara euskaltzain batzuk joan zirelako.

9.3. Miren Azkarate-ren kargu berria. M. Azkarateri zorionak helaraztea erabaki da, Eusko Jaurlaritzako bozeramaile izendatu dutelako.

9.4. El Correo Digitalen II. Sariketa. Aurten *El Correo Digitalen II.* Sariketan Euskaltzaindiak Interneten duen web orria sarigai gertatu da. Hamabi hoberenen artean dago Akademiaren web orria. Saritua zein den otsailean erabakiko da.

9.5. Euskaltzaindiaren ordezkaria Jaurlaritzan. Eusko Jaurlaritzak Euskaltzaindiari ordezkaria izendatzea eskatu dio, “Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeko” kide izan dadin. Zuzendaritzak, orain arte bezala, H. Knörr izatea erabaki du.

9.6. 2004ko egutegiaz. *Nafarroa Oinez*-ek Euskaltzaindia Lizarrara, urriaren orde-
dez, irailan joatea eskatu du. Zuzendaritzak ez dakusa hor arazorik, eta hau proposa-
tzen du: irailaren 17an osoko bilkura Lizarran egitea, eta urrikoa, aldiz, Gasteizen egi-
tea. Ontzat hartu da.

Batzarra 1,53an amaitu da.

Ageriko bilkura

Arratsaldeko 5etan ageriko bilkura egin du Akademiak Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiaren Tronu Aretoan, Euskaltzainburuaren eta Jose Juan Gonzalez de Txabarri ahaldun nagusiaren mahaiburutzapean.

Han, J.M. Satrustegiren senideez gainera, J. Haritschelhar, X. Kintana, B. Oihartzabal, A. Urrutia, M. Azkarate, A. Eguzkitza, A. Iñigo, E. Larre, J.L. Lizundia, P. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu eta P. Xarritton euskaltzainak, P. Andizabal ohorezko euskaltzaina, R. Badiola, J. Camino, M.P. Lasarte, J.A. Mujika, L. Oñederra, M. Ruiz de Urrestarazu eta J.J. Zearreta euskaltzain urgazleak, eta A. Okariz prentsa-arduraduna egon dira. Euskal Telebista, Donostiako Herri Irratia eta Argazki Press hedabideak ere bertan agertu dira.

Euskaltzainburuaren agur eta aurkezpen hitzen ondoan, Andres Iñigok Jose Mari Satrustegi euskaltzain osoaren hilberri-txostena irakurri du: “Jose Mari Satrustegi (1930-2003)”. Ondoren, Pello Salaburuk Rudolf de Rijk ohorezko euskaltzainarena irakurri du: “Rudolf de Rijk, euskaldunen Holandako adiskidea”.

Amaitzeko, J. Haritschelharrek hitza diputatu nagusiari eman dio eta berau, zenden merezimenduz gainera, eskualde guztietako euskaldunen arteko kultur eta adiskidetasun harremanak gorde eta estutzearen alde mintzatu da, bildurikoei bere eskerrak eta azken agurra emanez.

Bilkura arratsaldeko 6.20an amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana